

OHARRA: Testu kontsolidatu honek testu bakar batean aurkezten du araudia, ondorengo aldaketekin, errazago irakurtzeko eta ulertzeko. Hala ere, lege-balioa duen testu bakarra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da (era berean, aldaketa ofizialak aipatutako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak dira).

- [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2012/09/7an](#)
- 1. aldaketa: 17. eta 20. artikulua, [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2012/11/21ean](#).
- 2. aldaketa: 17. eta 25. artikulua, [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2013/01/11n](#).
- 3. aldaketa: 21. Artikulua, [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2013/06/21ean](#).
- 4. aldaketa: 17. 20. eta 32. artikulua, [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2015/09/17an](#)

ESKORIATZAKO UDALAREN ANTOLAKETA ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA

I. TITULUA: UDAL ANTOLAKETA	
1. KAPITULUA: ALKATEA, ALKATEORDEAK ETA ZINEGOTZI ARDURADUNAK	
II. KAPITULUA: PLENOA	
III. KAPITULUA: ZINEGOTZIAK	
IV. KAPITULUA: BATZORDE INFORMATZAILEAK ETA BEREZIAK	
V. KAPITULUA: AZPIBATZORDEAK	
VI. KAPITULUA: BOZERAMALEEN JUNTA	
VII. KAPITULUA: ELIZATE ALKATEAK, AUZO ALKATEAK, ELIZATE	
.....JUNTAK ETA BIZILAGUNEN BATZARRAK	
VIII. KAPITULUA: KONTSEILU SEKTORIALAK	
II. TITULUA: FUNTZIONAMENDUA	
I. KAPITULUA: PLENOAREN FUNTZIONAMENDUA	
II. KAPITULUA: BATZORDE INFORMATZAILEAK.....	
III. KAPITULUA: AZPIBATZORDEAK.....	
IV. KAPITULUA: UDAL KUDEAKETAREN KOORDINAZIO TEKNIKO.....	

V. KAPITULUA: HERRITARREN PARTIZIPAZIOA

VII. KAPITULUA: ALDERDI POLITIKOEI ORDAINKETAK ETA DEDIKAZIO ESPEZIFIKOA...

AZKEN XEDAPENA

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikuluan Toki Korporazioei bere buruz antolatzeko aitortzen zaien ahalmenaz baliaturik, Eskoriatzako Udalak Udal Antolaketa Erregelamendua sortzeko erabakia hartu du.

I. TITULUA

UDAL ANTOLAKETA

1. artikulua: Egungo hauteskunde legeriak agindutako eran aukeratu diren Alkateak eta Zinegotziek osaturiko Udalari dagokio udal gobernu eta administrazioa.

2. artikulua: Udalak ondorengo aginte-organuak izango ditu:

1.- ERABAKITZEKO AHALMENDUNAK:

- a. Alkatea
- b. Udal Plenoa
- c. Alkateordeak, hurrenkeraren arabera.
- d. Zinegotzi Arduradunak

2.- GAIK AZTERTU, INFORMATU ETA PROPOSATZEKO AHALMENA DUTENAK:

- a. Batzorde informatzaileak edo bereziak
- b. Azpibatzaordeak
- c. Alderdi Politikoetako Bozeramaileen Batzordea
- d. Sektore Kontseiluak
- e. Elizate alkateek eta auzo alkateek Alkatearen ordezkari elizateetan eta auzoetan direnez

1. KAPITULUA: ALKATEA, ALKATEORDEAK ETA ZINEGOTZI ARDURADUNAK

3. artikulua: Alkatea Korporazioaren, Juntaren eta Udal Organuen Lehendakaria da. Ahalmenak honako hauek dira:

- a. Udal Gobernu eta Administrazioa zuzentzea.
- b. Udalaren ordezkaria izatea.

- c. Udal Plenoetarako deialdia egitea eta plenoak presiditzea, Legeriak bestela aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta bestelako udal organoak ere presiditzea. Bozketatan enpaterik dagoen kasuetan Alkateak erabaki ahal izango du, kalitate botua erabilia.
- d. Udal zerbitzuak eta obrak bultzatzea eta jarraipena egitea.
- e. Bandoak egitea.
- f. Onartutako Aurrekontua oinarri hartuta, bere eskumeneko egitekoak, beti ere Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen arabera, hauek dira: gastuak ordaintzea eta agintzea; kreditu operazioak kontratatzea, bi kasu hauetan izan ezik: 1.- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1998 Legearen 158.5 artikuluan jasotako eskumenak, beti ere eskumen horiek Aurrekontuan aurreikusi badira, eta urte bakoitzean pilatutako Ohiko errekurtsoen %10a gainditzen ez badute; 2.- egindako eragiketen ondorioz pilatu den kopuruak aurreko urtean likidatutako diru-sarreraren %15a ez gainditzea.
- g. Udalbatzak onartutako Aurrekontuaren eta Plantilaren arabera lan eskaintza publikoa onartzea; langileak hautatzeko frogetako oinarriak onartzea; lanpostuak betetzeko oinarriak onartzea; eta soldata osagarriak - fijoak ez direnak - banatzea.
- h. Langileen arduradun nagusia izatea. Langileak izendatzea eta beharrezkoa denean zigorrak jartzea, gainera funtzionarioak zerbitzutik banatzea eta langile laboralen despidoa agintzea. Azkenengo bi kasu horietan Udalbatzari gertatutakoaren berri eman beharko dio, egiten den lehenengo bileran.
- i. Udaltzainaren arduradun nagusia izatea.
- j. Udalbatzari espezifikoki ez dagozkion planeamendu orokorraren garapenerako bitartekoak onartzea, baita hirigintza gestiorako instrumentuak eta hirigintza proiektuak ere.
- k. Udala defendatzeko berari dagokion ekintza judizial eta administratiboak egitea, baita beste organo bati delegatutakoak ere. Plenoari dagokion kasuren bat urgentea denean ere berak gestionatuko du. Halakoetan, plenoak egingo duen lehenengo bileran jakinarazi du egindakoa.
- l. Alkateari dagokion heinean, gaiak kaltegarri izendatzeko proposamena egitea plenoari.

- m. Katastrofe edo hondamen publikorik gertatutakoan edo arrisku publikorik dagoenean, bere ardurapean beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea eta Udaltzari hartutako neurrien berri ematea.
- n. Bere agindua bete ez denean edo udal ordenantzak bete ez direnean zigorrak ezartzea, beti ere zigor hori beste erakunde baten ahalmena ez denean.
- o. Era guztietako kontzesioak eta kontratazioak egitea, beti ere aurrekontu arruntaren %10a gainditzen ez denean, baina sekula ez 6.000.000 eurotik gorako gastua sortzen denean. Urte askoan zehar (gehienez lau) egin beharreko ordainketak egitea ere berari dagokio, baina kasu horretan ere beharrezkoa izango da guztira ordaindu beharreko kopuruak ez gainditzea lehenengo urteko aurrekontuaren %10a eta ezta 6.000.000 euroko kopurua ere.
- p. Kontratazioa edo kontzezioa egiteko ahalmena duenean eta Aurrekontuetan aurreikusita dagoenean, obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea.
- q. Ondasunak eta eskubideak erostea, beti ere gastuak ohiko aurrekontuaren %10a gainditzen ez duenean edo 3.000.000 eurok gainditzen ez dituztenean. Gainera, udal besterenganatzea ere bai, baina ondorengo hauek gainditzen ez direnean: * Ondasun ez-higigarria denean, Aurrekontuan jasotzen den kasuetan. * Ondasun higigarria denean, berriz, balio historiko edo artistikoa izan eta besterenganatzea aurrekontuan jasotzen ez den kasuetan izan ezik, beste guztietan.
- r. Lizentziak ematea, lege sektorialek eskumen hori Pleno edo Gobernu Batzordeari ematen dioten kasuetan izan ezik.
- s. Udalaren erabakiak betearaztea eta haiek publikatu eta exekutatzeko agindua ematea.
- t. Udalean herri kontsultak deitzea 7/1985 Legeko 71. artikuluan jasota bezala. Ahalmen hori ezingo da eskuordetu.
- u. Alkateordeak izendatzea.
- v. Legeek gaineratzen dizkieten bestelako egitekoak, eta Estatuko nahiz Autonomia Elkarteko Legeek udalerrinari bai baina udal organo espezifikoki bati gaineratzen ez dizkieten bestelako egitekoak.

4. artikulua: Alkateordeak alkateak bere gustora aukeratu eta izendatuko ditu, udaleko zinegotzien artean.
Ez ditu hiru alkateorde baino gehiago izendatuko.

5. artikulua: Alkateordeen egitekoak honako hauek dira:

- a. Alkatea ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, haren egitekoak betetzea. Alkateordeak hurrenkera errespetatuz izendatuko dira.
- b. Alkateak delegatutako eginkizunak egitea, Legeak zehazten dituen salbuespenetan izan ezik.
- c. Alkatea ekitaldi jakinetan ordezkatzeari berak horrela eskatutakoan, eta baita legeak aginduta alkateak ezin duenean parte hartu ere edo, beste edozein arrazoiengatik, une batez bere funtzioak utzi behar dituzte.

6. artikulua: Alkateak bere eginkizunak delegatu ahal izango ditu, apirilaren 2ko Legearen 21,3 eta 71 artikuluetan jasotako kasuetan izan ezik.

Alkateak hainbat egiteko delegatu ahal izango du alkateordeengan, eta gainontzeko zinegotzietan zerbitzu edo egiteko espezifikoak ere delegatu ahal izango ditu.

7. artikulua: Delegazio berezia duten zinegotziek, delegatutako gaia edo zerbitzua indartu, gestionatu eta zuzenduko dute, baina hirugarrenei eragingo dieten ekintza administratiborik ezingo dute egin.

II. KAPITULUA: PLENOA

8. artikulua: Plenoa zinegotzi guztiek osatzen dute eta Alkateak presidituko du.

9. artikulua: Plenoa hauteskude legeriaren arabera eratu ondoren, berari dagokio legeek ematen dizkieten eta beste inorengan delegatu ezin dituen eskumenak betetzea.

III. KAPITULUA: ZINEGOTZIAK

10. artikulua: Zinegotzien eskubideak eta betebeharrak dira apirilaren 2ko 7/1985 Legearen V. Tituluko V. Kapituluan zerrendatutakoak, horiek garatu eta aplikatzerakoan bertan aipatzen diren estatuko xedapenak eta toki erregimenari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko legeriak ezarritakoak. Zinegotzien jardura legedi horretan eta erregelamendu honen ondorengo artikuluetan ezarritakoak arautuko du, betiere, legedi horren aurkakoak ez badira.

11. artikulua: Zinegotziek, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin, Udalbatzarraren bilkuretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta baita kide diren kide anitzeko udal organoetara joateko eskubidea eta betebeharra ere.

12. artikulua:

1.- Zinegotzi guztiek beraien eginkizuna betetzeko beharrezko dituzten, eta udal zerbitzuetan egon daitezkeen, aurrekari, datu eta informazio guztiak Alkatearengandik jasotzeko eskubidea dute.

2.- Eskubide hori legean ezarritako kasuetan bakarrik mugatu ahal izango da zati batean edo osorik, eta besteak beste, honako hauetan:

- a) Dokumentuak edo aurrekariak jakiteak edo zabaltzeak pertsonen ohoreari, intimitate pertsonal edo familiarrari eta pertsonen irudiarri buruzko konstituzio-eskubidea urratu dezakeenean
- b) Hiritarren segurtasunari buruzko gaiak direnean, horiek publiko egiteak segurtasun horretan eragin okerra badute.
- c) Sekretu ofizialei buruzko urriaren 7ko 48/1978 Legean ezarritakoaren arabera sailkatutako gaiak direnean.

- d) Estatistika-sekretupeko gaiak direnean edo banku informatikoetarako sarbidea mugatzen duen legeak babestutako eremuetan eragina dutenak.
- e) Zigor prozesu judizial bateko parte diren aurrekariak direnean, sumarioko sekretupean dauden bitartean.

3.- Informazioa jasotzeko eskaera onartutzat joko da administrazio-isiltasunez, Alkateak ez badu eskaera ez onartzeko erabakirik ematen bost eguneko epean eskaera egindako egunetik kontatzen hasita.

4.- Dena den, informazioa jasotzeko eskaera ez bada onartzen, arrazoitutako erabaki bidez egin beharko da.

13. artikulua: Aurreko artikuluko 1. puntuan ezarritakoa gorabehera, udal zerbitzu administratiboek edo funtzionarioek zinegotziari informazioa ematera behartuta daude - baimenik duenik egiaztatu behar izan gabe- ondorengo kasuetan:

- a) Eskuordetzak edo kudeaketa ardurak dituzten zinegotzietan, eskurodertza edo ardura horiekin lotutako informazioa denean.
- b) Edozein zinegotziri bera partaide den kide anitzeko organoetan aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentuak direnean, eta baita edozein udal organok hartutako erabakiak direnean ere.
- c) Zinegotziek edozein herritarrek libre eskuratu dezakeen udal informazioa edo dokumentuak jaso gura dituztunean.

14. artikulua:

1.- Espedienteak, liburuak eta, orokorrean, dokumentazioa ikusteko eta aztertzeko arauak honako hauek izango dira:

- a) Edozein espediente edo aurrekari dokumental artxibo orokorrean edo gordeta dagoen tokian eskatu ahal izango da, eta eskaera egindako zinegotziak bere bulegora edo zinegotzientzat gordetako geletara eraman ahal izango du aztertzeko.
- b) Espedienteak, liburuak edo dokumentuak ezin izango dira inolaz ere Udaletxetik edo dagokion udal gela edo bulegotik atera.
- c) Akta liburuak eta erabaki liburuak artxiboan edo idazkaritzan aztertu beharko dira.

2. Zinegotziak bere funtzioa betetzeko emandako informazioa ezkutuan gordetzera behartuta daude, bereziki, oraindik hartu gabe dauden erabakien aurrekari bezala erabiliko direnak. Era berean, neurriak hartu beharko dituzte emandako originalen edo kopien kopiarik inork egin ez dezan.

IV. KAPITULUA: BATZORDE INFORMATZAILEAK ETA BEREZIAK.

15. artikulua: Zinegotziek osatuko dituzte batzorde informatzaileak. Batzorde horiei dagokie Plenoari erabakia har dezan proposatuko zaizkion gaiak aztertzea edo kontsultatzea, inolaz ere ez dagokie erabakiak hartzea. Alkateak bere eskumeneko gaiak batzorde informatzaileetan aztertzea eta kontsultatzea eskatu ahal izango du.

16. artikulua:

1. Batzorde informatzaileetako diktamenak, derrigorrezkoak dira baina ez binkulanteak.
2. Gaia urgentea denean, batzorde informatzaileak diktaminatu gabeko gai bati buruzko erabakia har dezake plenoak. Halakorik gertatuz gero, batzorde informatzaileak egingo duen lehenengo bileran plenoko erabakiaren berri emango da.

17. artikulua: Batzorde informatzaileen eskumenak eta horien azpibatzerdeak honako hauek izango dira:

Batzorde informatzaile bakoitzaren eskumeneko izango diren gaiak, batzorde kopurua eta horien izenak Udalbatzarrak finkatuko ditu, Alkatetzak proposatuta, Udalbatzarra eratu eta hurrengo 30 egunen barruan, eta bat etorri beharko dira Udalak une bakoitzean duen antolamendu egiturarekin.

18. artikulua: BESTELAKO BATZORDE BEREZIAK

Plenoak, gai jakinak tratatzeko batzorde bereziak sortu ahal izango ditu, ezaugarri bereziak izango dituztenak.

Tratatu beharreko gaia tratatu eta diktamena egin ondoren, batzorde horiek bertan-behera geldituko dira.

V. KAPITULUA: AZPIBATZORDEAK

19. artikulua: Zinegotzi Delegatuei zerbitzu baten barne zuzendaritza eta gestio lana egiteko ardura ematen zaie, eta azpibatzerdeak lan hori egiten laguntzeko bitartekoak dira. Azpibatzerdeek ez dute erabakirik hartzeko gaitasunik eta euren helburua honako hau da:

- a. Zerbitzu bakoitzari dagozkion gaiak, batzorde informatzaileari ezagutarazi beharko zaizkionak, aztertzea eta lantzea, azkenik batzorde informatzaileari proposamena egiteko.
- b. Alkatearen eskumenekoak diren gaiak aztertzea, ondoren hark erabakia har dezan.

Azpibatzerdearen arduradun nagusia zerbitzuaren zuzendaritza eta gestioaz arduratuko den zinegotzi delegatua izango da.

20. artikulua: AZPIBATZORDEA

Azpibatzerdeen kopurua eta izena Udalbatzarraren erabakiz finkatuko dira Alkateak proposatuta, eta batzorde informatzaile bakoitzaren eskumeneko gaiekin bat etorri beharko dira.

VI. KAPITULUA: BOZERAMALEEN JUNTA

21. artikulua:

Bozeramaleen junta organo aholku emailea eta laguntzailea da, Alkateak edo berak eskuordetutakoak egiten du bertako buru eta udal talde politikoetako bozeramaleek osatzen dute.

Organo hori garrantzi handikoa da maila politiko gorenean informazioa trukatzeko eta eztabaidatzeko, eta baita Udalarentzako eta udal jarduerarako garrantzi handieneko gaietan esku hartzeko. Besteak beste, izaera orokorreko gaiak eta udal interesekoak izan arren udal antolaketan egoki moldatzen ez diren gaiak aztertuko ditu, eta erabaki edota mozio proposamenak egin ahal izango dizkie Udalean erabaki ahalmena duten organoei, horiek onartu ditzaten.

Bozeramaleen juntarako deia bertako buruak egingo du edo bi udal taldek horrela eskatuta. Azken kasu horretan, aztertu beharreko gaiak aipatu beharko dira eskaera idatzian.

Juntaren osaketa baliozkotzat joko da taldeen erdia baino gehiago baldin badaude bertan, eta horiek udalbatzarkideen gehiengo absolutua osatzen baldin badute.

Oro har, bozeramaleen juntaren erabakiak gehiengoz eta boto haztatuaren arabera hartuko dira.

Bozeramaleen junta izango da erakunde adierazpenak onartzeko organo eskuduna, eta adierazpenak onartu ahal izateko eskubidezko kide guztien sinadura beharko da. Kide guztien babesa lortzen ez bada, testuak edo proposamenak erabaki edo mozio proposamen izaera izango du.

Artikulu honetan aurreikusi gabekoetarako, erregelamendu organiko honetan gainerako udal gobernu organoetarako ezarritako funtzionamendu arauak aplikatuko dira.

Interes orokorrekoak diren gaiak aztertzeko, Alkatea udalean ordezkaturata dagoen alderdi politiko baten bozeramalearekin edo alderdi guztietakoekin elkartu ahal izango da.

Bozeramale guztiekin elkartzea erabakitzen duenean, talde horri Bozeramaleen Junta deituko zaio. Organo horrek guztiak komunikatu komunak egin ahal izango ditu eta Plenoari proposamenak egin ahal izango dizkio.

Organo horrek maila politikoan egiteko garrantzitsua du, informazio eta eztabaidarako gune aproposa delako. Gainera herriarentzako eta herriaren jardunarentzako garrantzi handikoak diren gaiak aztertzeko ere bitarteko paregabea izango da.

VII. KAPITULUA: ELIZATE ALKATEAK, AUZO ALKATEAK, ELIZATE JUNTAK ETA BIZILAGUNEN BATZARRAK

22. artikulua:

1. Elizate bakoitzean ordezkari bat izango du Alkateak: Elizate Alkate; eta Lete auzoan, berriz, Auzo Alkatea. Elizate alkateak eta auzo alkatea elizate bakoitzean eta auzo horretan bizi direnen artean aukeratuko da ondorengo artikuluetan ezarritako moduan.

2. Elizate alkateek eta auzo alkateak agintari izaera izango dute, Alkatearen ordezkari diren heinean, udal betebeharrak betetzerakoan.

3. Elizate alkatea elizate bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Auzo alkatea auzo bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Proposatutako izangaia izendatuko du Alkateak. Proposatutako izangaia izendatzera ukatuko balitz, horretarako arrazoiak eman beharko ditu eta uko egite hori justifikatu.

4. Karguaren iraupena izendapena egin zuen Alkatearen agintaldiari lotuta egongo da. Era berean, Alkateak elizate edo auzo alkatea kargutik kendu ahal izango du justifikatutako arrazoiengatik eta Eliza Juntari edo Auzo Juntari entzunaldia eman ondoren.

5. Gobernu batasunaren eta udal kudeaketaren kaltetan gabe, elizate alkateek eta auzo alkateek ondorengo atribuzioak izango dituzte:

a) Elizate juntetako, auzo juntetako eta bizilagunen batzarretako bileretarako deia egin eta bilera buru izan, eta eztabaidak zuzendu eta berdinketak erabaki bere kalitateko botoarekin.

b) Juntaren eta bizilagunen batzarretako erabakiak bete eta betearazi.

c) Bere kabuz edo Alkateak horrela eskatuta, landa bideen, udal mendien eta udal zerbitzuen berri eman.

d) Elizatean eragina izan dezaketen edo elizaterako interesgarriak izan daitezkeen obra eta zerbitzuen proiektuei buruzko informazioa eman, betiere, bere eskumenak baliatuz.

e) Elizatearentzako edo auzoarentzako interesgarriak izan daitezkeen obrak egiteko edo zerbitzuak emateko proposatzea Udalarari bere eskumenak baliatuz.

f) Herriko gaien kudeaketan eta elizateko edo auzoko bizitza soziala dinamizatzeko jardueretan auzotarren parte hartzea sustatzea.

g) Udalak gai bati buruzko informazio eskatutakoan, informazio hori ematea.

h) Alkatearen ordezkaria denez auzoan edo elizatean, Alkate-Udalburuak emandako beste edozein jarduera edo zeregin zehatz. Hala ere, horrek ez du ekarriko, inolaz ere, eskuduntzarik edo eskumenik eskuordetzea.

23. artikulua:

1. Udal eskumeneko gaien kudeaketa hobea lortze aldera elizate edo auzo bakoitzaren eremuan, elizate juntak edo auzo juntak eratuko dira, eta horiek deskontzentratutako kudeaketa lurralde organo izaera izango dute. Elizate juntak eta auzo juntak elizate alkateak edo auzo alkateak eta horiek hautatzerakoan horien ondoren boto gehien lortu zuten bi edo hiru auzotarrek osatuko dituzte.

2. Elizateetako edo auzoko lurralde eremuan informazioa ematea eta jendearen parte hartzea ahalik eta gehien errazte aldera, elizate alkateak edo auzo alkateak bizilagunen batzarretarako deia egin ahal izango du. Batzar hori, bertan parte hartu nahi duten elizate edo auzo bakoitzeko adin nagusiko bizilagun guztiek osatuko dute.

3. Elizate juntako edo auzo juntako kideei dagokie elizate alkatearen edo auzo alkatearen gestioa kontrolatzea eta berari laguntzea bere atribuzioak gauzatzekoan.

VIII. KAPITULUA: KONTSEILU SEKTORIALAK

24. artikulua: Herriko jardunei erantzun ahal izateko, sektorekako organoak sortu ahal izango dira, herritarren eta herriko elkarten partizipazioa udal ekimenetan integratu ahal izateko.

Kontseilu horien izena, antolaketa, eraketa, kompetentziak eta jarduera esparrua plenoak hartutako erabaki bitartez arautuko da.

II. TITULUA FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA: PLENOAREN FUNTZIONAMENDUA

25. artikulua:

Udalbatzarrak hilero egingo ditu ohiko bilkurak, hilaren laugarren asteartean , 18:30ean. Laugarren asteartea baliogabea baldin bada, osoko bilkura aurreko egun baliodunean egingo da. Larunbatak ez dira kontatuko. Justifikatutako arrazoirik balego, Alkateak ahalmena izango du ordua aldatzeko. Aldaketaren arrazoiak berri eman beharko dio Udalbatzarrari.

26. artikulua:

- a. Udalbatzarra balioz eratzeko beharrezko da lau udalbatzarkide eta idazkaria bertan egotea. Behin Udalbatzarra eratuta, bilkuretako lehendakaria Alkate jauna edo berak izendatutako zinegotzia izango da. Bilkurak egiteko beharrezko da gutxienez lau udalbatzarkide eta idazkaria elkartzea. Gutxienerako quorum hori bilkurak iraun bitartean mantendu beharko da. Hala ere, erabaki berezi batzuk hartzeko gutxienerako beste quorum bat finkatuta dagoen kasuetan, gutxienerako berezi hori bete beharko da.
- b. Bilkuran Alkatea eta udalaren idazkaria, edo biak legalki ordezkaturiko dituzten pertsonak egoteaz gain, beste hauek ere egon beharko dute:
 - Udalkideak. Hitza eta botua izango dutenak.
 - Beharrezkoa denean gai espezifikoren bat aztertzeko, konbokatutako teknikaria.
- c. Beste hauek ere parte hartu ahal izango dute:

Udalbatzarraren bilkurak publikoak dira, herritarren intimitatearekin, ohorearekin edo irudiarekin zerikusia duten gaiak aztertu behar direnean izan ezik.

Udalbatzarraren bilkuretan bere burua identifikatzen duen edonork parte hartu ahal izango du bere izenean edo edozein erakunderen ordezkari izan, betiere, Alkate-Udalburuari horretarako baimena eskatu eta horrek baimena eman ondoren.

27. artikulua: Udalkideek derrigorrez joan beharko dute bileratara, beti ere pisuzko arrazoirik egon ezean. Halakorik egonez gero, lehendakariari behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko diote. Bileretara ez joateko arrazoirik ematen ez denean, erregelamendu honen 51. artikuluan zehaztutakoa aplikatuko da.

Udalkideren bat bilkura berandu iritsiz gero, sartu denetik aurrera eta bilkura bukatu arte hitz egiteko aukera izango du.

Gairen bat tratatzen hasi, baina erabakia hartu baino lehen udalkideren batek bilkura utziz gero, bozketan abstentzio balioa izango du.

28. artikulua: Ohiko Bilkuran tratatuko diren eta, agian, bozkatuko diren gaien zerrenda eta dokumentazioa, bilkura egin aurreko astelehenean, eguerdiko 12:00ak baino lehen egon

beharko da idazkaritzan. Ez-ohiko bilkura egindakoan, berriz, dokumentazioak gutxienez hiru lanegun lehenago egon beharko du idazkaritzan.

Bilkura Ohikoa nahiz Ez-ohiko izan, gai zerrenda eta dokumentazioa udalbatzarkide guztiei bidaliko zaie plenoa baino 2 lanegun lehenago.

Antolamendi Jarduera Araudiaren 80.3 artikulua bilkuretako deialdia zinegotzietan beraien etxean jakinarazi behar zaiela jartzen badu ere, honela egingo da: deialdia, bilkurarako gainontzeko dokumentazioarekin batera, zinegotzi bakoitzaren erretiluan utziko da eta zinegotzi bakoitzak adierazitako posta elektronikora ere bidaliko da.

29. artikulua: Plenoko gai zerrendan lehenengo puntua, beti, aurreko bilkurako aktaren onarpena izango da. Gai zerrendan, gainera, edozein zinegotzik eskatutako gaiak sartuko ditu Alkateak, beti ere dagokion batzorde informatzailearen diktamena badu edo batzordean informatu edo/eta kontsultatu bada.

Alkateak, urgentziatzko arrazoiak medio, eta berak hala erabaki duelako edo beste edozein zinegotzik eskatu diolako, aldezturik batzorde informatzaile batetan tratatu eta informatu ez diren gaiak sartu ahal izango ditu gai zerrendan, baina halakoetan ez da inolako erabakirik hartuko, harik eta Plenoak gai hori gai-zerrendan sartzeko erabakia berresten ez badu.

30. artikulua: Udalkide bat bilkura egiten den aretoan dagoenean bertaratu dela kontatuko da. Halakoetan Alkateak zinegotzi horri dagokion jarlekuan jartzea eskatu ahal izango dio. Zinegotziak bere jarlekuan jarri nahi ez badu, bilkuran egon ez denaren ondorioak izango ditu.

31. artikulua: ZINEGOTZIEN PARTE-HARTZEA.

Eztabaidagai den gaia bozkatu aurretik, zinegotziek hitz egiteko baimena eskatuko diote alkateari eta onartutakoan, zinegotzi bakoitzak 5 minutuz hitz egiteko aukera izango du. Esatekoekin, kide gutxien duen taldea hasiko da eta gehien duenak amaituko du. Partehartze hau Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen Legea eta haren xedapenetan Alkateari ematen zaizkion ahalmenen kaltetan gabe egingo da.

Esatekorik zuten zinegotziek esan beharrekoak bukatu ondoren, eta gaia bozkatu aurretik, Alkateak herritarrei hitz egiteko aukera emango die. Herritar bakoitzak ere 5 minutuko tartea izango du esan beharrekoak esateko.

Alkateak ikusiz gero partehartze tartea luze jotzen duela edo esan beharrekoak modu desegokian esaten direla, hitz egiteko txandak eteteko eskumena izango du.

32. artikulua: MOZIOAK

Mozio bat gai-zerrendan sartzeko beharrezkoa da zinegotzi batek eskatu izatea eta Erregelamendu honen 28. artikuluan zehaztutako epeak betetzea. Moziorik egonez gero, plenoko deialdiarekin batera helaraziko zaie zinegotzietan.

Edozein talde, erakunde edo herritarrek, zinegotzi baten bitartez edo udalean ordezkatuta dagoen alderdi politikoren baten bitartez, mozioak aurkeztu ahal izango ditu, gai-zerrendan sar daitezkeen.

Alderdi politikoren batek mozio alternatiboa aurkeztu nahi izanez gero, plenoa baino 6 ordu lehenago aurkeztu beharko du udal erregistroan sarrera emanez..

Mozioen bozketa-prozedura honako hau izango da: lehenengo eta behin gai zerrendan aurkeztutako mozioa bozkatuk oda osotasunean edo, hala eskatuz gero, puntuz puntu. Ondoren, mozio alternatiborik egongo balitz, mozio alternatiboa bozkatuk oda osotasunean edo, hala eskatuz gero, puntuz puntu. Mozio alternatibo bat baino gehiago egonez gero, udal erregistroan sarrera emandako ordenan bozkatuko dira.

Onartutako mozioak udal webgunean publikatuko dira, hartutako erabakiak hitzez-hitz eta aurkeztutako mozioa osorik irakurtzeko esteka batekin.

33. Artikulua: Ondorengo puntuan zehazten diren boto partikularrak eta enmiendak definitzerakoan erabiliko den terminologia honako hau izango da:

- **Diktamena:** Batzorde informatzaile batek espediente bat aztertu ondoren, Plenoari onartzeko aurkezten dion proposamena da.
- **Proposamena:** Batzorde informatzaile batek gai bati buruzko diktamena egin ez bada, baina urgentziazko arrazoiak medio Plenoan tratatu beharra ikusten bada,

Alkateak, behar bezala arrazoitu ondoren, gai bat gai-zerrendan sartzea proposatu dezake. Alkateak, berak bere kabuz aurkez dezake proposamena edo baita dagokion batzorde informatzaileko kide diren bi zinegotzik eskatuta ere. Gaia gai-zerrendan sartzen bada, proposamen idatzia deialdiarekin batera banatuko da, baina gaia tratatu ahal izateko eta hari buruzko erabakiren bat hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da zinegotzietatik gaia gai-zerrendan sartzea berrestea. Berrespen hori, batutako zinegotzien gehiengo txikiz onartu beharko da.

34. Artikulua: BOTO PARTIKULARRAK ETA ENMIENDAK

A.- Boto partikularra: Batzorde informatzaile batek egin duen diktamena aldatzea proposatzeko erabiliko dira boto partikularrak. Boto partikularra aurkezteko eskumena izango dute batzorde informatzaile horretako kide izanik, gaia eztabaidatu den momentuan batzordean egon direnek. Boto partikularren proposamena idatziz aurkeztu beharko da diktamena onartu eta hurrengo 24 orduen barruan. Epe horretatik aurrera, diktamenarekin batera banatuko da beti boto partikularra.

B.- Enmienda: Plenorako aurkezten den proposamena aldatzeko edo batzorde informatzaile batek egin duen diktamena aldatzea proposatzeko erabiliko dira enmiendak. Edozein zinegotzik izango du enmienda aurkezteko eskumena, beti ere dagokion batzorde informatzaileko kide ez bada edo kide izanik ere gaia tratatu den momentuan batzordean egon ez bada. Enmiendak idatziz aurkeztu beharko dira, plenoa izan baino gutxienez 48 ordu lehenago. Alkatearen ardura izango da enmienda horien berri alderdietako bozeramaileei helaraztea.

Boto partikularrak nahiz enmiendak osokoak edo partzialak izan daitezke.

Osokoak izango dira diktamenaren edo proposamenaren egokierari, printzipioei edo espirituari buruzkoak direnean; halakoetan diktamena atzera botatzea proposatuko da edo diktamen hori osorik ordezkatzeko beste testu bat aurkeztuko da.

Partzialak izango dira diktamenaren edo proposamenaren puntu zehatz bati buruzkoak direnean. Halakoetan proposamenak hiru motakoak izango dira: Kentzekoak. Aldatzekoak. Gehitzekoak.

Plenoan lehenik eta behin osoko boto partikularrak eta enmiendak eztabaidatuko dira, hurrenkera horretan bozkatzuz. Onartu ezik, Udalbatzak boto partikular partzialak eta enmienda partzialak banan-banan eztabaidatuko eta bozkatuko ditu. Azkenik, boto partikularrik edo/eta enmiendarik onartuko balitz, horiekin osatutako testua bozkatuko da.

35. artikulua: BOZKETAK:

Partehartzeak eta eztabaida amaitu ondoren, bozketa egingo da. Salbuespenak salbuespen, diktamena edo proposamena osorik bozkatuko da.

Zalantzarik izanez gero, bozketa hasi aurretik Alkateak argi eta garbi azalduko du zer bozkatzen den, eta behin bozketa hasiz gero ezingo da inolaz ere eten.

Erabakiak bozketa arruntez hartuko dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako bozketa nominala egitea erabakitzen ez badu behintzat.

Bozketa egiteko modua: Bozketak ohiko eran egingo dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako, eta gehiengo soilez, berariaz bestelakorik ez badu erabakitzen behintzat. Bozketa ohiko eran egiteak esan nahi du zinegotzi bakoitzak berariaz adieraziko duela bere botoa.

Bozketa nominala Udalbatzarreko idazkariak udalbatzarkide bakoitzari egindako galderari bai edo ez erantzunez egingo da.

Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke. Zuriz ere bozkatu ahal izango dute udalbatzarkideek eta baita abstenitu ere.

Gaia eztabaidatzen hasi eta gero udalbatzarkideren batek bilkura utziko balu, ondorengo bozketan abstentziotzat joko da.

Bozketan berdinketa izanez gero, bozketa berria egingo da, eta berdinketak jarraituko balu, Udalburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.

36. artikulua: Erabakia hartu ondoren, eztabaida garaian parte hartu ez duten zinegotziek, edo parte hartu arren, azkenean, euren botua aldatu dutenek, lehendakariari baimena eskatu ondoren, emandako botua justifikatu ahal izango dute.

37. artikulua: Hartutako erabakiaren kontrako botua eman duten zinegotziek, bidezko diren ekintza administratibo eta judizialak egin ahal izango dituzte.

38. artikulua: GALDE-ESKEAK.

Plenoetan beti sartuko da Galde-eskeak deiturikoa puntua. Tarte horretan lehenengo eta behin zinegotziek parte hartuko dute eta egoki irizitako proposamenak eta kontsultak egingo dizkiote udal gobernari.

Behin zinegotzien txanda amaituta, txanda berri bat irekiko da hala nahi duten herritarrek kontsultak egin ahal izateko.

Alkateak irekiko eta itxiko du kontsultak egiteko tartea.

39. artikulua: Idazkariak plenoan gertatutakoaren akta egingo du, tratatutako gaien eta hartutako erabakien berri jasoko duena.

Edozein zinegotzik eskatu ahal izango dio Idazkariari Plenoan gertatutakoaren berri jasotzen duen aktaren kopia eman diezaiola.

Alkatearen erantzukizuna da Plenoak hartutako erabakiak gauzatu daitezen, interesatuei haien berri lehenbailehen ematea.

Akta onartu ondoren, dagokion Liburuan artxibatu eta udal webgunean publikatuko da.

40. artikulua: EZ-OHIKO BILKURAK

Ez-ohiko plenoa Alkateak erabakitakoan edo lau zinegotzik eskatutakoan egin ahal izango da. Zinegotzi batek ezingo du urtean hiru aldiz baino gehiagotan eskatu ez-ohiko plenoa egitea.

Lau zinegotzik ez-ohiko plenoa egitea eskatu duten egunetik aurrera, gehienez 15 eguneko epean egin beharko da bilkura. 15 eguneko epe hori kontatzen hasiko da ez-ohiko plenoa egiteko eskariari Udaleko sarrera erregistroan sarrera ematen zaion egunaren biharamonetik aurrera. Ez-ohiko bilkura horretako gai zerrendan zinegotziek tratatzea eskatu duten gaia bakarrik jarriko da, baldin eta zinegotzi horiek beste gairik sartzeko baimenik ematen ez badute.

Lau zinegotzik ez-ohiko bilkura egiteko baimena eskatu baina Alkateak dagokion epean bilkura egiteko deialdirik egin ez badu, plenoa automatikoki konbokatuta geldituko da, legezko 15 eguneko epe hori bukatzen den egunetik aurrera, hamargarren lanegunerako. Hamargarren egun horretan, eguerdiko hamabietan egingo da. Kasu horretan Idazkariak udalkide guztiei jakinaraziko die noiz egingo den plenoa, lehen aipatutako 15 eguneko epea bukatzen den egunaren biharamonean. Alkatea edo hark izendatutako zinegotzia bilkurara joan ez, baina lau zinegotzi elkartu badira, plenoak balioa izango du. Kasu horretan lehendakaria zinegotzi zaharrena izango da.

Bilkurak gutxienez bi egun lehenago konbokatuko dira, urgenceak direnean salbu. Pleno bat egitea urgentea den ala ez erabakitzea Alkateari dagokio, baina konbokatu eta gero, Plenoan bertan bilkura egitea preminazkoa zela berretsi beharko da.

Alkateak pleno bat urgentziaz konbokatzeko egon diren arrazoen berri eman eta gainontzekoek berretsi ondoren, besterik gabe, eta inork kontrakorik esaten ez badu, gaia eztabaidatuko da. Zinegotziren batek gai hori urgentea ez dela adieraziz gero, bozketa egingo da eta bozketan urgentiaren aurkako emaitza ateraz gero, Alkateak bilkura amaitutzat joko du, gaiari buruzko erabakirik hartu barik.

Ez-ohiko bilkuren funtzionamendua, ohiko plenoentzako aurreikusitako bera izango da.

Gai-zerrendan zehaztutako gaiak bakarrik tratatu ahal izango dira, ez besterik.

II. KAPITULUA: BATZORDE INFORMATZAILEAK

41. artikulua: Batzorde informatzaileek elkartzen diren lehenengo egunean erabakiko dute zein egun eta ordutan egingo duten bilera, kontuan izanik hamabostean behin elkartu beharko dutela, Pertsonal eta Gobernu Batzorde Informatiboak izan ezik. Lehenengo egunean erabakitako ordu eta eguna mantendu egingo da, bestelako erabakirik hartzen ez den bitartean. Dena den, batzordeburuaren iritziz gairen bat tratatzea beharrezkoa edo urgentea denean ez-ohiko bilerak egin ahal izango dira.

42. artikulua: OSAERA ETA BOTOA

OSAERA

Batzorde bakoitzean honako hauek egongo dira.

- Lehendakaria: alkatea edo hark izendatutako batzordeburua
- Batzordekideak: alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak
- Idazkaria: arloko teknikaria edo haren ordezeko langilea.
- Arloetako teknikariak

Gainera honako hauek ere parte hartu ahal izango dute:

- Batzordearen eskumenekoak diren gaiaren gestioaren arduradunak diren zinegotziak.
- Beste edozein zinegotzi.
- Herritarren interes orokorrak edo arlokakoak defenditzeko batzordeburuari horrela eskatutako edozein elkarte edo pertsonak. Kasu horretan, parte hartzea onartzea justifikatu duen interes orokorra edo arlokakoa aztertu behar den batzordeetan erregulartasunez parte hartzeko konpromisoa hartzen da.

BOTOA

Batzorde informatzaileetan hitza eta botoa honako hauek izango dute:

- Lehendakariak
- Batzordekideek edo haien ordezkariak.

Hitza bai, baina boturik gabekoak izango dira:

- Idazkaria eta arloetako teknikariak.
- Batzordekideak ez diren zinegotziak.
- Herritarrak edo elkarteetako ordezkariak.

43. artikulua: HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Herritar batek edo elkarte bateko ordezkari batek puntualki gai konkretu bat tratatzeko batzordean parte hartu nahi badu, batzordeburuari baimena eskatuko dio gai hori tratatzen den bitartean batzordean egoteko. Baimena lortuz gero, herritar horrek hitz egiteko aukera izango du baina gaia bozkatzerakoan ez du botorik izango.

44. artikulua: Alderdi bakoitzaren ordezkarietan batzorde informatzaile bakoitzean parte hartuko duen zinegotziaren izendapena, bozeramaleak idatziz jakinaraziko dio Alkateari, eta Plenoan ere jakinaraziko da.

45. artikulua: Batzordeburuak bilerako gai-zerrenda egingo du eta batzorkide guztiei banatuko die. Bileran gertatutakoren berri akta laburrean jasoko da.

46. artikulua: Batzorde batek ezingo du beste baten eskumeneko gairik eztabaidatu. Dena den gai komunak tratatzeko batzorde bat edo gehiagoren arteko bilera egin ahal izango da. Halakoetan batzordeburua Alkateak izendatutako zinegotzia izango da.

47. artikulua: Batzordeburu horren egitekoak honako hauek izango dira:

- Gai-zerrenda egitea
- Batzordea presiditzea eta eztabaidak zuzentzea eta koordinatzea.
- Batzordean parte hartu nahi duten pertsonen hitz egiteko aukera ematea.
- Batzordean tratatutako gaien berri Alkateari ematea.

48. artikulua: Batzorde informatzaile batek balioa izan dezan, beharrezkoa izango da gutxienez hiru kide biltzea, horien artean bat batzordeburua eta bestea idazkaria.

49. artikulua: Erabakiak gehiengoaren arabera hartuko dira. Batzordekide bakoitzak boto bat izango du.

III. KAPITULUA: AZPIBATZORDEAK

50. artikulua: Azpibatzerdeko zinegotzi delegatu bakoitzak erabakitako egun eta orduan egingo da.

Kideak hauek izango dira:

- Zinegotzi arduraduna.
- Udal teknikaria.
- Herriko elkarteak edo pertsonak, azpibatzerdeak tratatuko dituen gaietan interesa dutenak.

IV. KAPITULUA: UDAL KUDEAKETAREN KOORDINAZIO TEKNIKOA

51. artikulua: BARNE KUDEAKETARAKO BATZORDEA

Udal arloetako arduradun teknikoek eta alkateak osatutako organoa hau zuzendaritza politikoa eta teknikoa uztartuko ditu. Bere zeregina Udalaren jardura exekutiboaren kohesioa eta ekintza tekniko-administratibo guztien koordinazioa dira.

V. KAPITULUA: HERRITARREN PARTIZIPAZIOA

52. artikulua: Udalak bere jardunaren informazio zabala eskainiko die herritarrei, eta herriaren jardunean eragin ahal izateko ateak zabalduko ditu, beti ere Udal organoek erabakiak hartzeko daukaten eskumena murriztu gabe.

53. artikulua: Herritar guztiek, Administrazio Prozedura Legearen arabera beti ere, udalak hartutako erabakien kopiak eta egiaztagirak jaso ahal izango dituzte, kasu bakoitzaren aurrekariekin batera, eta nahi izanez gero artxibo eta erregistroak kontsultatu ahal izango ditu.

54. artikulua: Adinez nagusiak diren herritar guztiek interes pertsonala egiaztatzeko eskaria egin diezaiokete udal organoari; gainera, udal eskumenekoak diren interes orokorreko ekintzak egin edo erabakiak eskatzeko eskubidea ere izango dute. Eskubide hori erabiltzen dutenen aurka ezingo da ekintzarik egin, nolabaiteko delito edo faltarik egin duen kasuetan salbu.

55. artikulua: Herritarren batek Udalari eskaria egindakoan, idatzia Erregistro Nagusian aurkeztuko du eta izena, helbidea eta Nortasun Agiriren bat zehaztu beharko ditu.

56. artikulua: Herritarren interesak defendatzeko herri-elkarteak sor daitezten erraztasunak emango ditu Udalak. Elkarre horiei, ahal den neurrian, udal informazio zabala eskainiko die eta ekintzak egin ditzaten udalaren jabetzako bitartekoak erabiltzen utziko die.

VI. KAPITULUA: PARTEHARTZE PROZESUAK

57. artikulua: Udalak herritarrek parte hartze prozesuak hasi ahal izango ditu udal egintza edo politika bati buruzko herritarren iritzia ezagutzeko. Komunikazio eta parte-hartze udal batzordearen eskumena izango da parte hartze prozesuak bideratu, zuzendu eta kudeatzea. Parte hartze prozesuak batzordearen ekimenez, talde politiko baten eskariz edo eskaera egiterakoan Eskoriatzan erroldatutako herritarren % 25aren eskariz hasi ahal izango dira.

Herritarren iritzia ezagutzeko parte hartze prozesuaren emaitzak Udalbatzarraren erabaki batean eragina izan badezake, parte hartze prozesua hasi ahal izateko Udalbatzarraren legezko gehiengo absolutuaren onarpena beharko da.

Prozesu bakoitza arautuko duten irizpideak prozesu bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda onartuko dira.

VII. KAPITULUA: ALDERDI POLITIKOEI ORDAINKETAK ETA DEDIKAZIO ESPEZIFIKOA.

58. artikulua: Indarreango legerian alderdi politikoen ordainketari buruz zehaztutakoaren arabera, alderdi guztiei diru-kopuru finko bat emango zaie, guztientzako berdina izango dena; eta beste diru-kopuru bat aldakorra izango da, alderdi bakoitzak duen kide kopuruaren arabera. Guztia, beti ere, Aurrekontuan finkatutako diru-mugak gainditu gabe. Ordainketa horiek egiteko EUDELe emandako irizpideak jarraituko dira. Aurrekontua gauzatzeko Arauan finkatuko dira, diru-kopuru aldakorra kalkulatzeko ezarriko diren irizpideekin batera, talde bakoitzeko kideei ezarriko zaien zigorrak udalbatzarretara eta batzorde informatzaileetara justifikaziorik gabe ez joateagatik.

Alderdi bakoitzak, jasotzen duen diru-kopuruaren kontabilitate zehatza eraman beharko du. Kontabilitate hori, eskatzen zaion guztietan, plenoan aurkeztu beharko du.

AZKEN XEDAPENA

Antolaketa Erregelamendu hau alderdi politiko baten eskariz aldatu ahal izango da, baina aldatzeko udalbatzaren legezko kopuruaren gehiengo absolutua beharrezkoa izango da.

Dena den, legealdi hau bukatu eta hurrengo legealdi berria hasitakoan, erregelamendua derrigorrez berriro aztertu behako da.



Udalaren antolaketa erregelamendua TESTU BATERATUA

Erregelamendu honetan jaso gabe gelditu diren gora-behera guztiak azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenaren Erregelamenduan aurreikusitako xedapenek arautuko dituzte.

NOTA: El presente Texto Consolidado presenta, en un único redactado, la Normativa con sus posteriores modificaciones para facilitar su lectura y comprensión. No obstante, se advierte que el único texto con valor legal es el publicado en el Boletín oficial de Gipuzkoa (asimismo, las modificaciones oficiales son la publicadas en el citado Boletín Oficial)

- - o [Publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa e 7/09/2012](#)
 - o 1ª Modificación: art. 17 y 20- publicada en el [Boletín Oficial de Gipuzkoa el 21/11/2012](#)
 - o 2ª Modificación: art. 17 y 25- publicada en el [Boletín Oficial de Gipuzkoa el 11/01/2013](#)
 - o 3ª Modificación: art. 21- publicada en el [Boletín Oficial de Gipuzkoa el 21/06/2013](#)
 - o 4ª Modificación: art. 17, 20 y 32- publicada en el [Boletín Oficial de Gipuzkoa el 17/09/2015](#)

REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

ÍNDICE

TITULO I: ORGANIZACIÓN MUNICIPAL	
CAPITULO I: DEL ALCALDE O ALCALDESA, LAS Y LOS TENIENTES DE ALCALDE Y CONCEJALES Y CONCEJALAS DELEGADAS	
CAPITULO II: DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN	
CAPITULO III: DE LOS CONCEJALES Y CONCEJALAS	
CAPITULO IV: DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS Y O ESPECIALES	
CAPITULO V: DE LAS SUBCOMISIONES	
CAPITULO VI: DE LA JUNTA DE PORTAVOCES	
CAPITULO VII: DE LOS ELIZATEALKATES, AUZO-ALKATES, ELIZATE JUNTAS, AUZO JUNTAS Y ASAMBLEA DE VECINOS Y VECINAS (Bizilagunen batzarra)	
CAPITULO VIII: CONSEJOS SECTORIALES	
TITULO II: RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO	
CAPITULO I: DEL FUNCIONAMIENTO DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN	
CAPITULO II: DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS	
CAPITULO III: DE LAS SUBCOMISIONES	
CAPITULO IV: DE LA COORDINACIÓN TÉCNICA DE LA GESTIÓN MUNICIPAL	

CAPITULO V: DE LA PARTICIPACION CIUDADANA.....

CAPITULO VI: PROCESOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA.....

CAPITULO VII: ASIGNACIONES A GRUPOS POLÍTICOS Y DEDICACIÓN EXCLUSIVA

DISPOSICION FINAL.....

En virtud y reconocimiento de la capacidad de organización de las Corporaciones Locales por el artículo 20 de la Ley 7 / 1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases de Régimen Local, el Ayuntamiento de Eskoriatza, adopta el presente acuerdo constitutivo del reglamento orgánico Municipal.

TITULO I

ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

Artículo 1º: El Gobierno y la administración municipal corresponden al Ayuntamiento integrado por el Alcalde o Alcaldesa y los y las Concejales elegidas en los términos de la legislación electoral vigente.

Artículo 2º: El Ayuntamiento ejercerá sus competencias a través de los siguientes órganos:

1.- CON FACULTADES DECISORIAS:

- b. Alcaldía
- c. El Pleno de la Corporación
- d. Los y las Tenientes de Alcalde, por orden que se fije.
- e. Los y las Concejales Delegadas

2.- CON FACULTADES DE ESTUDIO, INFORME Y PROPUESTA:

- a. Las Comisiones Informativas o Especiales
- b. Subcomisiones
- c. La Junta de Portavoces de los Grupos políticos
- d. Los Consejos Sectoriales
- e. Los/as elizatealkates y auzo alkates como representantes del/ Alcalde/sa en las Anteiglesias y Barrio, respectivamente.

CAPITULO I: DEL ALCALDE O ALCALDESA, LAS Y LOS TENIENTES DE ALCALDE ,Y CONCEJALES Y CONCEJALAS DELEGADAS

Artículo 3º: El/la Alcalde/sa preside la Corporación, Juntas y Organismos Municipales, y ostenta las siguientes atribuciones:

- a. Dirigir el Gobierno y la Administración Municipal.
- b. Representar al Ayuntamiento.

- c. Convocar y presidir las sesiones del Pleno de la Corporación, salvo los supuestos previstos en la Legislación vigente y de cualquier otro órgano municipal, y dirigir los empates con voto de calidad.
- d. Dirigir inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales.
- e. Dictar bandos.
- f. El desarrollo de la gestión económica de acuerdo con el Presupuesto aprobado, disponer gastos dentro de los límites de su competencia, concertar operaciones de crédito, con exclusión de las competencias en el art. 158.5 de la Ley 39/1998, de

